


# ANAITASUNA

225. zenb.

1971.eko Abenduaren 30ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12  
Tel. 43 18 37



## Zu, Euskal herri!

Zu, Euskal Herri, ez zara handia, ez boteretsua.\*

Zure gualosten durundioak ez du inoiz mundua dardaraz jarri.

Zure historiak ez du garrantzirik izan, eta ez duzu mundua gidatu.

Zure semeak ez dira milioika kontatzen, eta zure hizkuntzak ez ditu zure mugak gaingitzen.

Zuk ez duzu herri eguzkitsuen distirarik, ez iparraldeko lurralde elurtsuen majestaterik.

Zurean, batzuek ukatu egiten dute Jainkoa, eta besteek elkar arbuia.\* Batzuek aberastasuna dute, eta besteek morrointza.

Eta, hori guztia egia delarik, nik ezin zintzaket maite.\*

Baina ukatua zarelako, baztertua eta oinpean erabilia...

Izena eta izana kendu nahi dauzkizutelako...

Zure semeak zutaz ahanzten\* eta lotsatzen direlako...

Munduko herririk madarikatuen eta irainduena\* zarelako, horregatik maite zaitut.

Barka iezadazu, gai tipi eta humil batez idazten badut; baina gaur sentimental sentitzen dut neure bihotza.

Horregatik, neure txapela kendu dut, belauniko jarri naiz, eta, burua beheratuz, zure lur zikindu honetan musu bat ezarri dut.

Eta lau hitz esan dauzkizut. Ez munduko hizkuntzarik indartsuenean, ez zabalduenean, ez ederrenean. Ez. Lau hitz hauk, neure hizkuntzan, euskaraz soilik esan daukizut: Euskal Herri, maite zaitut!

XABIER GEREÑO

dauzkizute, **dautzuez**, dizkizute  
daukizut, **dautzudaz**, dizkizut

iezadazu, **eidazu**, ezaidazu  
zintzaket, **zindeikedaz**

## BILBO

### Deustuko ikastolan

Ohitura da, urtero gurasoentzat afari hotz bat antolatzea; eta aurtengoa oraintsu egin dugu.

Andreek eraman zituzten janariak. Gizonek, berriz, edariak; eta mahaiak atondu\* ere. Eta, afaria hotza izan arren, giroa bero bero zegoen.

Ikastolan, egunero elkartzen dira gure seme-alabak. Gu, gurasook, hitzaldietan eta urteroko afari eta ibilaldietan. Guztiz beharrezkoa, elkarren artean berotu eta euskararen aldeko burruka aurrera eramateko.

### Nafarroako anaiei

Neure dolumina adierazi nahi diet nafar anaiei. Almeriako bat etori berri zaie artzobispo. Nafar euskaldunak erdi umezurtz geratu dira.

Eta gero kexaz esango dute batzuek, euskal gazte-ria marxismora doala!

### Unibertsitatea

Hau idazten dudan egunean, abenduaren 17an, hiru fakultatek hitxi dituzte ateak Bilboko Unibertsitatean. Ikasleak urduri\* daude. Protestaka ibili dira hiriko\* kaleetan.

Hainbat gauza dira Bilboko Unibertsitatean aldatu beharrak: Aula batean 500 bat ikasle omen\* daude; matrikulatzea ikastaroaren hasieran egin behar da; hirietatik Unibertsitaterako bideak ez dira egokiak; eta abar, eta abar.

Laster datoz Gabonak. Lortuko\* ote dute jai hoiak, gizonen buruetan zentzu apur bat sartzea?

### «Los Ríos» aldizkaria

Gaur, «Los Ríos» izeneko aldizkaria irakurri dut. Hogei orrialde ditu, baina bat bakarra euskaraz; eta bakar hori ez dago Euskal Akademiak agindutako ortografiaz idatzita.

Bereiztu egin nahi ditut Eliza eta elizgizonak. Haue-tariko askok onartu dute, bidezko den bezala, Euskaltzaindiak proposaturiko ortografia; baina Elizak ez. Zergatik? Ez dut ezagutzen, Elizak ofizialki argitaraturiko paper bat ere, euskal ortografia batuan idatzita dagoenik. Eta berriro galdetzen dut: Zergatik?

Elizak ez du onartzen Euskal Herriaren *batasuna*, ez baititugu oraino euskal gotzainen konferentzia episkopalik eta euskal artzobispadurik. Era berean, Elizak ez du onartzen euskararen *batasuna*. Zergatik? Noiz arte horrela?

### Euskal liburuak

Askok esaten dute, idazle batzuek zail idazten dutela. Beharbada, irakurle guztientzako liburuak egin behar dira: batzuk irakurle eskolatuentzat eta beste batzuk hain jakitun ez direnentzat. Baina ugariago behar genituzke liburu irakur errazak, hain kritikatuak diren ikastoletan euskal kulturdun asko eta asko sortu arte behintzat.

Euskaraz nola idatzi behar den esanplu bezala, orain esku artean dudan liburua ipini nahi dut: Xalbador Garmendiaren *Lurraren Kondaira*, «Irakur Sail» argitarazleak zabaldua. Gai sakona, euskara apain eta errazean eskainia.

### «Jakín» argitarazlea

«Jakín» editorialak (zuzenbidea: Santuario de Aránzazu, Oñate, Guipúzcoa) datorren urterako programazioa egin du. Liburu oso interesgarriak argitaratuko ditu.

Hauen berri gura\* duenak, idatz beza goian emandako zuzenbidera.

Liburu guztiak euskara batuan izango dira, eta prezio merkean.

### Ikastolen kontra

Ezkerreko «ultra» delakoek, ikastolak «burgesak» direla esaten dute. Hauei hau itaundu\* nahi diet: Nola, nola izan liteke heziketa osoa (ez ikastoletakoa bakarrik) burges sistema baten barruan? Nola ordainduko diegu irakasleei, gurasoen diru laguntzarekin izan ezik?

Eta, eskuineko puntan, hor ari da Blas Piñar «euskalduna» ikastolen kontrako lanean, berak kontrolatzen duen aldizkaritik.

Alde bietaraino hau esan gura\* diet: Kontrako kritika egitea, gauza erraza da; baina soluzioak ematea, ez hainbeste. Eta, gaur, ikastolek laguntza behar dute, alferrikako eztabaiden ordez.

### «Príncipe de Viana» aldizkaria

«Príncipe de Viana» izeneko euskal aldizkaria Iruinean argitaratzen da; eta, gaur heldu zaikun alean, eraberritze pozgarri bat ikusi dugu: gazte talde bat hasi da idazten, aldizkariari «saltsa» emanez.

Eta, «saltsa» aipatu dugunez gero, Dorrauko apaizaren artikuluak emango duena ez da tipia izango. Nire esku balego, jaun hori Afrikako misioetara bidalduko nuke, bai horixe!

### Gotzain berria

Urduritasuna\* kalean. Ba dugu gotzain berria: Añoveros Ataun jauna. Jatorriz nafarra da (eta, beraz, etxekoa), baina hizkuntzaz erdalduna da.

Bizkaiko kristau euskaldunok (berrehun milatik gora) ez dugu ondo iusi, euskaraz ez dakien bat gure gotzain izatea. Ehundik gora apaiz eta fraile, askoz gehiagoren izenean, Derioko Seminario Nagusian bildu dira, eta euskaldunon protestarekin ados daudela adierazi dute.

Gaurko egunkarietan bederatzi apaiz eta frailek (beraz, beste haien aldean, lau katu) orrialde osoko nota bat publikatu dute euskaldunen kontra.

### Komisio Presbiteriala

Ahal den arinen, Bizkai eta Arabako Komisio Presbiterialek argi eta garbi eskatu behar lukete, gure diosesiak Burgoseko artzobispadutik atera eta Iruinekoari lotzea.

## Gizona gizonarentzat otso

Azken urteotan, enpresa batera lanera sartu ahal izateko, aurrez examina bat, edo bat baino gehiago, gairitu\* behar izaten da. Enpresa batean injinadore berri baten premia dagoenean, agerkarietatik\* edo dei bat egiten da. Orduan, 20 edo 40 edo 60 injinadore biltzen dira lantegi horren deira. Examina zehatza egiten diete, eta injinadore egokiena hautatzen dute. Jarraian, haren lanerako prestutasunarekin salerosketan, tratuan, jartzen dira enpresa jabeak. Hau da, injinadoreak honenbeste eskatzen du bere lanaren truke, eta enpresa jabeak honenbeste eskaintzen du. Gerra osteko urteetan hain ahalguztidun izan baziren ere, orain injinadoreak soldata meheekin hasten dira lanean. Ni, zoritxarrez, ez naiz injinadore, eta, beraz, ez noa injinadoreen egoeraz errukitzera, haien kasua aipatuz, injinadore ez garenok norainoko egoera hestua goan aurkitzen garen esatera baizik.

### Lan eskasia eta langile hobereen hautatzea

Gaur egun, lanerako prest direnak edo lan bila dabilzanak askoz ere gehiago dira, lanerako eskaintzen diren tokiak baino. Hau da, lan eskabidearen kurbatura askoz ere goragotik dabil, lan eskaintzarena baino. Honen arrazoirik behinenak,\* hauk\* dirateke:\* teknika modernoek urritu egin dute eskulanaren premia, demografia ugartu egin da (gerra ostean\* gure artera kanpotik etorritako jende gaztearen semeak, lanerako sasoikoak dira orain), eta, Euskal Herrian bereziki,\* lantegi berririk ez da sortu demografiaren arauera.\*

Gauzak honela direlarik, enpresa jabeek ugari dute non hauta,\* eta, bidezkoa dena, hobereenak hautatzen dituzte. "Bidezkoa" esaten dugunean, kapitalist sistemaren kategoriei gagozkie.

### Indartsuak nagusi

Era honetan, amaren sabeletik listotasuna dakartenek, aitaren poltsikotik jakituria erosi ahal dutenek, egunaren orduak, beren buruaren prezioa altxatzeko, berenak eta berentzat dituztenek... honako hauek irabazten dituzte lan-modurik eta lansaririk\* hobereenak. Besteak, lan txarra goa bakarrik ezeze, lan gehiago eta lansari urriago edukitzera kondenaturik gelditzen dira, gizamaila luze bat osotuz. Indartsuak, buruz bizkorak eta fisikoki (diruz, norberkeriaz...) azkarrak ateratzen dira garaile.

### Guztiok salerosketan

Baina indartsuenok, eta hain indartsu ez direnek, guztiok, saldu egiten dute beren lanerako indarra. Hau da, lanaren truke, soldata bat jasotzen\* dute. Edo, beste era batera esanez, enpresa jabeek erosi egiten dute lanindarra, materia primak, argi indarra eta abar erosten dituzten legez.\*. Eta, jakina, eroztera doazen materia guztiak bezala, lanindarra ere ahalik eta merkeen erosi nahi izaten dute, haien helburua\* beren dirutza loditzea baita. Edo, kasurik onenean, kompetentziari buru egin ahal izatea. Beraz, inorentzat lan egiten dutenek, beren lanindarra saltzen dute, lansari baten orde. Jakina den bezala, lansari hori ez da eginaren parrekoa, zati bat baizik.

### Ezin dugu anaiak izan

Gauzak honela izanik, eta ezin daitezke bestela izan kapitalist sistemaren barnean, jabeak jornaleroen etsai\* gertatzen dira, eta alderantziz.\* Era berean, guztiok guztion artean zapaltzaile gerta beharrean aurkitzen gara, jabeak konpententziarengatik, eta jornaleroak "indartsuena- ren legeagatik". Nahiz eta jabeak, jornaleroen aurrez aurre, beren interesak defenditu ahal izateko, nolabait bateratzen diren, eta berdin jornaleroek, jabeen aurrez aurre, guti asko, bat egiten duten.

Beraz, ezin dugu elkarren anaiak izan. Honetarako, hots, anaiak izan ahal izateko, borondate ona eta erlijioaren deia eta arrazoiak izaten ditu gizarteak. Baina arrazoi hoiengainetik —nahiz eta egiazkoak eta sarritan mesedegarriak izan— ba dira "de facto" beste lege indartsuago batzuk, kasurik gehienetan bata bestearen arerio\* izatera eramaten gaituztenak. Edo, lehenagoko pentsalariak esan zuen bezala, "homo homini lupus", gizona gizonarentzat otso.

ANJEL ZELAIETA

### Apaizgaiak Bizkaian 1971. urtean

Apaiztu direnak ... ..	11
Batxileratoan dagoenak ... ..	252
Filosofia eta teologia ikasten ... ..	82
Ihaz* seminariorako bilduriko dirua	2.313.683 pezeta

Batxileratoa egiten diharduenak, egia esan, batzuk\* apaizgaiak dira; baina beste batzuk ez dira apaiz izateko ikasketak egiten ari, nahiz eta horretarako giro batean bizi. Batxileratoa ikasten ari direnok, ihaz baino 46 gehiago dira. Eta filosofia eta teologia ikasten diharduenak, eta, okerrik ez bada, apaiz egingo direnak, joan dan ikastaroan baino 8 gutxiago dira.

1970. urtean, aurrekoan baino 1.200.000 pezeta gutxiago bildu ziren. Derioko apaizgai etxea, Gurdipide zana- ren agindupean egina, haundiegia gertatzen da gaur egun, hain pertsona gutxiagotzat. Ikastetxe hau, seminario dan bitartean, Elizarena da; baina, inoiz hala ez balitz, berriro ere Bizkaiko Diputazioarena izango litzateke. «Bizkaiko Elizak, apaizgaiei dagokioenez, ba ditu zenbait\* kezka eta arazo, esan dau Zirarda jaunak, eta beste euskal Elizekin batera bide berri eta egokiak biltzen dihardugu».

### ANAITASUNA Bizkaia

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Jardin Txikerra 1, Bilbao-12.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

**Ikastolen alde Billabonan eta Donostian**

Billabonako ikastolaren alde, kantuzko jaialdi bat ospatu izan da herri haretako «Gurea» zinetokian, abenduaren 11n. Antxon Valverde, Maritxelar, «Erlak» bikotea eta «Enbor» taldea izan ziren parte hartzaileak. Presentadore zereginak «Pello Kirten» jaunak egin zituan.

Donostiako Santa Mariako ikastolaren alde, jaialdi bat ospatu zan hiri haretako «Teatro Principal»ean, abenduaren 12an. Parte hartu ebenak: «Oskarbi» taldea, «Gaztelupe» zortzikotea, «Kresala» dantza taldea, Pepe Yanci soinularia, «Donosti Erestri» korala, Donostiako «Schola Cantorum» eta Hazparneko dantza taldea. Jaialdi hau «Orixe» taldeak antolatu eban, Donostiako «Centro de Atracción y Turismo» dalakoaren babespean.

**Euskal ekonomiari buruzko mintzaldiak Donostian**

Donostiako Aurrezki\* Kutxaren «Sala de Cultura»n, euskal ekonomiari buruzko berbaldi batzuk\* eman izan ditue ekonomilari batzuek. Genaro Garate, Angel Genua, Rafael Ossa Etxaburu, Dorao Lanzagorta, Juan José Rodríguez eta «Fagor» kooperatibako ordezkari batek jardun eben, euskal ekonomiaren egoera larri xamarrari argi egin nahiz. Euskal ekonomiaren etorkizuna aipatzean, Empresa Jabeen eginbeharra ikutu eben.

**Euskal festa Aiherran**

Abenduaren 12an, jaialdi eder bat izan da Nafarroa Behereko Aiherran. Arratsaldean, 4 orenetan,\* Baigorri, Hazparne eta Aiherrako kantariak. Gero afaria, Hazparneko musika bandarekin. Bertsolariak, Arrossagaray, Higaray, Larre eta Alkhat.

**Gabriel Aresti poeta zigorpean**

Gabriel Aresti bilbotar poetak aditzera eman daukunez, eta ale honetan argitaratzen dugun bere poesian dioskunez, «Harrizko Herri Hau» bere liburuagatik epaitua izango ei\* da. Liburu hori «Código Penal» delakoaren 165-bis-b artikuluaen kontra doake.

**«IV Semana Intelectual de Zarauz» ikastaroa**

«IV Semana Intelectual de Zarauz» ikastaroa ospatu izan da Zarautzen, abenduaren 6tik 11rarte. Lehendabizikoz, Joseba Intxausti frantziskotarra mintzatu zan «Euskara batua gaur» gaiari buruz. Gero beste gai honeek azaldu ziren: «Las drogas», Jesús Martínez jaunak. «Situación del subnormal en Guipúzcoa», Concepción Lejarretak. «Integración de la mujer en la sociedad», Pilar de Cuadrak. «Charla informativa sobre la Universidad de Guipúzcoa», Manuel Querol-ek. Ikastaro hau «Club Deportivo de Zarauz» elkarteak eratu eban, udaletxearen\* babespean.

**«Euskal Jakintza Astea» Bergaran**

«Euskal Jakintza Astea» ospatu da Bergaran, «Escuela de Maestría» etxean, «Patronato Irigoyen» erakundearen\* ardurapean. Ikastaro hau jarraiko era honetara egin zan: Donato Unanue eta Ambrosio Zatarainek «La economía del Pueblo Vasco» gaiari buruz jardun eben. Kintana eta Altuna jaunek «Euskara» arazoa ikutu eben. Eta Joseba Intxausti «Historia del Pueblo Vasco» gai luzearen inguruan mintzatu zan. Ikastaro honetan parte hartu eben entzuleetariko bakoitzak 75 pezeta ordaindu zituan.



**Euskal diskoak: TXAIRO**

**LORERIK EDERRENAK**

Lorerik ederrenak, zelalan sortutakoak, ametsik gozoenak gaztetan egindakoak, muxurik samurrenak, maite, zuk emandokoak.

Abesti politenak, olerkirik onenak, zugaltzaren emaltzik eder eta gozoenak, eskeintzen diskizut ametsik ederrenak.

Zeru urdiñ dira zure begiak, izarrak bezin dizdiragarriak.

Esan zaidazu zalantza gabe maite nauzula pixka bat.

**ARROKERIA**

Gaztea naiz ta ulertu ezin det zer gertatzen dan munduan, burrukan dabiltz gizon gehienak arrokeriaz gaiñezka.

Nik txikitandik beti maitasuna entzun izan det eten gabean, baiñan bildur naiz gezurra ote dan ez bai det ikusten kalean.

Malte galtezen zahar eta gazteak Jaunak agintzen dun bezela, mendiko lore, zeruko izar, itxasoko arralen antzera.

**ANA**

Anal, auxe da lana, Zu gabe gozagaltz zait dana jana eta edana, kaltegarri ditut, laztana.

Anal, Anal

Usoak joan dira hegoaldera, kabi barriren bat han billatzera, maitasun galduak aztutzera.

Laiñoak aizetan dabiltz, bide luzeak egiten; bihotz ixillèn malkoak ez ditu iñork jakiten.

Anal, Anal

Negarrez urtu naiz dana,

Illunari nago emana. Atoz, all, neregana: atoz, bai, Anal Erbiak arin dljoaz txakur agiñen lgesi; nere oiñaze honekin ezin ninteko ni blzi.

**ZURI BAKARRIK**

Zuri bakarrik abestuko dizut bai, nik, soiñu politak bihotz barrutik.

Kezkati nabil, burutik txoraturik, hainbesteraifño maite zaitut nik. Maitatzen diran txori ta arraiak, loretan dagozen mendi ta hibaia, agertzen dute betiko maite egarria.

Zu barriz, ez dakit nolatan zabilten. Nahi dezu hitz egin doiñuren batian?

CIN - 152

Egileak: Cinsa - Av. Ejército, 18, 8.º - BILBAO - 14

## Antxon Valverderen disko berria

Agertu berria da Antxon Valverde Donostiako kantariaren hirugarren diskoa. Aurreko biak nahiko entzunak izan dira jendearen artean; eta hirugarren honek, gai berdin xamarrekin dagoenez gero, harrera ona izango dau hurrean.\* Lau kanta dakaz: **Hura** (Antonio Valverde «Ayalde»ren letra, eta Antxonon doinua), **Garia saltzen**, **Abenduaren zazpian** eta **Iruñako ferietan**. Azalean «Ayalde»ren marrazki\* bi.

## Antzerkia Mondragoen

Inazio Begiristain jaunaren «Apaiza, langile eta gizon» antzerkia jokatu izan dabe Lazkanotarrek Mondragoen, «Gurea» zinetokian, joan dan hazilean.\*

## Luis Villasanteren mintzaldia Zumaragan

Aita Luis Villasante euskaltzainburuak\* mintzaldi bat eman eban «la unificación del euskera literario» gaiari buruz, Zumaragan, «Escuelas Legazpi» ikastetxean, iragan\* hazilaren\* 30ean.

## Bilkura inportante bat Maulen

Abenduaren 3an, Zuberoko Maulen, bilkura\* bat egin izan da herriko etxean, bertako alkate eta kontseilari zenbaitekin, kontseilari jeneralarekin, diputadu jaunarekin eta Mauleko lantegi zenbaiteko nagusiekin.

Mauleko lantegietan lana ba dela, eta lana gehituaz doala, denek ikusi dute. Bi mila langile ba dira Mauleko lantegietan, hoietan 335 arrotz (portuges eta beste).

Baina kalte handia dute, orotarik\* urrun izanez, behar dituzten gauzak ekar erazteko eta beren obrak sal lekutara helerazteko. Horretarako, inportantzia handia Maulera heltzen diren bideek.

Gero, arratsaldean, Zuberoko alkateak ere juntatu zaizkie bilkuran parte hartzaileei, eta hor aipatu dira eskualdean\* egin behar diren lanak.

## Arkitektoak Euskal Herrian

1971. urtean, 274 arkitekto izan dra, Euskal Herrian lanean ari izan direnak:

Arabak	16
Bizkaian	126
Gipuzkoan	75
Nafarroan	57

Guztitarak ... 274

«Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro» dalaokoren lehendakaria Francisco Garrás Miqueo da, eta idazkaria Javier Fontán Gamarra. Arabako delegazioaren lehendakaria, Enrique Narimón Alava; Bizkaikoarena, Rufino Basañez Villalabeitia; Gipuzkoakoarena, Vicente Guibert Azcue; Nafarroakoarena, Fernando Redón Huici.

## Akordeoi soinua disko haundi batean

«Orquesta de Acordeones» izenburuarekin, eta Josu Loroñoren zuzendaritzapean, disko nagusi bat atera berri dau «Columbia» etxeak. Jarraiko kantuen doinuak dakar: **El caserío**, Guridirena. **Euzkotarrak**, Arruerena. **Maitechuria**, Alonsorena. **Nere Erria**, Loroñorena. **Gure Txomin**, Alberdirena. **Gernikako Arbola**, Iparragirrerena. **Amaya**, Guridirena. **Kukua ta amillotxa**, Loroñorena. **Goizeko Izarra**, Loroñorena. **El Roble y el Ombú**, García Arceluz-ena. **Boga Boga**, Iparragirrerena. **Ya vienen los blusas**, Basidarena.

## Euskal jaia Donibane Lohitzunen

Euskal jai bat ospatu izan da Lapurdiko Donibanen, abenduaren 8an, ikastolaren alde dirua bildu ahal izateko. Carrère eta Ospital kantariak, Bilboko albokariak, «Begiraleak» dantza taldeak, Xanpun eta Esponde bertsolariak eta Estitxuk jardun izan eben.

## «Herri Zapalduen Kantua» dala eta

Joan dan hazilaren\* 7an, Pariseko «La Mutualité» etxean, «Herri Zapalduen Kantua» izenarekin ospatutako jaialdia dala eta, jarraiko karta hau jaso\* izan dogu Parisetik:

Zenbait euskal agerkaritan\* aditzera eman izan da «Herri Zapalduen Kantua» delako jaialdiaren gertaera. Baina nahiko faltsuturik ikusi izan dugu. Euskal Herriaren izenean, Mikel Laboa, Eñaut Etxamendi eta Ellande Larralde kantatu zutela esan da. Maite Idirin kantariaren izena, ordea,\* aipatu gabe gelditu da.

Festibal hau, Euskal Herriari zegokion arloan, Donibane Lohitzuneko elkarte batek prestatzen zuen, eta Maite Idirin ez zen hautatua izan. Baina batzordeko beste herrien errepresentatzaileak, harritasun handiz, euskal kantariak zeintzuk ziren ikusirik, kexatu egin ziren. Euskal kantarien berri zehatzagoa jakin zuten, eta Maite Idirin onartu beharrekoa zela ikusi ere. Hala ere, Maite Idirini ez zitzaion propagandarik egin, azken unean batzordekoek ateratako zertxobait aparte. Oraindik gehiago: festibala bukatu eta gero, Donibane Lohitzuneko elkarte horretakoek Maite Idirini idatzi diote, esanez, bere gastuak (eta bere laguntzaileenak: kitarrista eta abar) ordaintzeko, ez zutela dirurik, beste euskal kantarien joan-etorria, hoteletako gastuak eta ordaindu ondoren.

Azkenez, hazilaren\* 15eko «La Cause du Peuple» frantses maoisten aldizkariak, Sartre-ren babespean ateratzen denak, azken orria osoki dedikatzen dio festibalarri, eta hiru kantari bakarrik aipatzen ditu: Maite Idirin (haren kantuen bi letra emanez), Luis Llach katalana eta Marti okzitaniarra.

Besterik gabe, aurrez eskerrak emanez, zuen lagun,

J.

''ZORIONAK''

emateko  
aurtengo Gabonetan  
erosi  
CEL-LO etiketak,  
neurri askotakoak  
EUSKARAZ nahiz  
Erdarazkoak.



JARDINES, 10 - TEL. 24 60 81  
BILBO - 5

# Aurrera jo beharra

Atzean gelditu zaikun urtea ez da, inolaz ere, ona izan ekonomiarentzat. Mendebalde\* guztian, ikaraldiak eta gorabeherak ugari izan dira; eta hainbat bider sartu zaiku bide hestuetatik merkatu libreko ekonomia hau.

Krisi kutsuzko egoera jeneral honetan, Estatu bakoitzeko ekonomiak bere berezitasunak agertu izan ditu. Espainol teknokraten gidaritzapean doan ekonomia, bizkortasun eta errektibazio bila ari\* izan da, iragan\* urteetako moteltasunetik irten\* nahiz. 1970.eko azken hila-beteetan hasi ziren enpresarioak neurri bizkortzaileen eske, inflazioaren kontra lehen hartutako neurriak kentzeko proposatuz.

Izan ere, inportazioa gelditu erazteko, gobernuak "depósito previo" delakoa esijitu zuen, eta, diruaren garestitasunagatik, bankoak diruz bete ziren. Bankoak diruz gainezka egon arren, ez zuen inork diru hori eskatzen, inbertitzeko. Egoera honen ondorioz, ekonomia osoa moteldu zen. Altzairuaren produkzioa gutitu egin da ihazkoaren\* aldean, eta autoen merkaturua asetu; hori dela eta, produkzioa ez doa gorantz, itxaroten\* zen abiadan.\* Berdin xamarra da, zementu, argi indar eta beste hainbat gauzarekin jazo\* izan dena.

Egoera hau zuzendu guraz,\* "depósito previo" hori kendu egin du gobernuak, eta dirua ere merketu, inoiz baino "tipo de interés" tipiago bat ezarriz. Baina dena izan da alferrik. Neurri hauen ahulezia\* ikusirik, azkenean, inork itxaroten ez zituen erabakiak hartu dira, fisko aldetik bereziki.\* Izan ere, inpostu asko kendu dira (adibidez, "impuesto de sociedades" deritzana), inbertsioetarako nahia bizkortzeko. Erabaki hauekin batera, hauxe guti gorabehera esan die gobernuak enpresa jabeei: Hor duzue zenbatnahi erraztasun. Zer gehiago nahi duzue?

Enpresa gizonen erantzuna, beste honako hau izan da, guti goitibeheiti: Hartu diren erabaki guztiok ondo ikusten ditugu, baina apurtxo bat berandu etorri dira. Arintxoago izan balira...

Neurri bizkortzaileak, edo, hobeto esan, bizkortasuna eta inflazioa, elkarrekin dabilzan lagunak dira. Ihaz,\* inflazio galant batekin amaitu genuen urtea.

Honez gainera, inflazioa haunditzen duten neurriak hartzen badira, denok susmatzen dugu zer etorriko zaikun gero: inflazioak balioa mozten dio diruari; eta horrek dakarren ezbeharra, langileen gain jausten\* da batez ere. Langileek, beren soldata mozturik ikusiko dutenean, burrukara joko dute, bistan diren argumenduekin. Bestalde, ekonomi agintariak ezin dezakete, inolaz ere, neurritz kanpo dagoen inflaziorik onar,\* ekonomia guztia hondamendirako joango litzateke eta. Orduan, enpresa gizon askoren susmoa hauxe da: Inbertitzeko erraztasunik ba dugu, bai; baina ba liteke, hemendik sei edo zazpi hilabetera, inflazioaren ondorio gaizto guztiak bat batean ebaki gura izatea, eta enpresak hestualdi batean erortzea.\*

Hemen dabilan joko guztia aztertzean, ekonomi agintariengan konfiantza galdu dela nabaritzen\* da; eta konfiantza hori beharrezkoa da, Estatu baten ekonomia aurrera atera ahal izateko.

ANTON AZKONA

dezakete, **daik**  
die, **dautse**  
dio, **dautso**  
zaiku, **jaku**, zaigu

# Hitz sakratuenak topiko bihurtzen direnean

Nik ez dakit zer gertatzen zaikun; baina askotan egon izan naiz pentsatzen zenbait\* hitzen esannahiaren aldatzetaz. Ba dirudi, hitz bat zenbat eta sarriago\* erabiltzen den, hainbat gehiago aldatzen dela.

Hala ere, txarrena ez da hitzen esannahiaren aldatzea. Hizkuntzaren barren barreneko legea baita. Txarrena ez da hori. Askoz okerrago deritzat beste honi: gaur erabiltzen —eta gehiegi erabili ere— ditugun zenbait hitz oso anbiguo gertatzen zaizkigula. Denok erabiltzen ditugu; baina ez dugu jakiten askotan, zer esan nahi duten.

Hitz hoik,\* hartzen dituzten igurtzi\* haundiengatik, hutsak, esannahi garbirik gabeak bilakatzen\* dira. Eta honi, mende\* honetako fenomenorik grabeenetakoa deritzat.

Geure bizitza hizkuntzaren bitartez adierazten eta, neurri batean behintzat, egiten badugu, ez ote gara esku hutsik geldituko? Ez ote gara ari,\* geure bizitza husten? Eta, azkenean, ez ote gara izaki\* abstraktu batzuk bihurtuko? Topikoz betetako izaki abstraktuak?

## Kasu konkretu bat

Azter dezagun, adibidez, ospe handia duen HERRIA hitza. Berez,\* esannahi zehatza izan behar luke. Baina, zoritxarrez, herria aipatzerakoan, bakoitzak gauza desberdina ulertzen duela dirudi. Bakoitzak bere alde erabiltzen duela ez gara konturatzen. Baina konturatu beharra dugu. Pozik egongo nintzateke, nire artikuluxka honek norbaiti lagunduko balio.

Inoiz entzun izan dugu, herriaren mitoak galerazi behar direla. Eta orduan ba dirudi, honela mintzatzen direnak herriaren kontzientzia bihurtu direla. Une horretan, ez dakit ohartzin diren, beraik ere herri sortu direla, «mitoz eta sinbolo faltsuz betetako» herri horretatik. Eta ez dakit nik, zeren pribilejioz bihurtu diren herri horren gezurraren epaile.\* Herria dutela helburu,\* diote; baina hori esatea erraza da. Egiaz zer den jakitea, beste kontu bat.

Beren hitz hoik\* erabiltzean, ahoa betetzen zaie; eta gehiegi sakondu gabe botatzen dituzte beren anatemak. Herriaren alde, baina herriaren zenbait mitoren kontra.

Erazegia da, bat batean anatemak burutik behera botatzea. **Erazegia da, bai eta ere, zenbait topikoren bitartez jendea pozik uztea.** Baina topikoek azterketa bat eskatzen dute. Azterketa hori egiten ez bada, eta jendea engainatzen, atzipetzen\* badugu, gure jokoa ez da garbia izango. Eta honela jokatzin dutenen erantzunkizuna, benetan da handia herriaren aurrean. Eta, batez ere une larri honetan, geure interesei bakarrik begiratuz, arinkeriako joko hori egiten badugu, ez dugu merezi euskaldun izenik, ez eta gizon izenik ere.

## Errespetua

Nire arrazoiketa honen helburua, jendeari kontzientzi apur bat eskatzea da. Behar beharrezkoa dugu borondate onez jokatzin.

Askotan ikusi dugu HERRIA, edozeinen ahotan nor bere asmo partikularrei begira erabilia. Herriaren izenean bidegabe asko egin direla ere ikusi da inoiz. Eta hau dena, hitz hori nork bere erara ulertzen duelako da.

# Sozialismoaren dialektika

Teoria marxistak, ofizialak, esaten duen bezala, klase burrukak, zientifikoki aztertutik, lehengo estamentu zaharren gaintzea dakar eta sistema hobeto baten etorrera. Hau hola gertatu da historian zehar.\* Ba dirudi, Mendebaldea\* eta Ekialdea\* ere bide horretatik doazela; baina fase batzuk eliminatuz, hau da, jeneralki pasatzen diren fase batzuk iragan\* gabe. Hor daduzkagu China eta Rusia, feudalismotik sozialismora pasatu direnak.

Gaintze honen sustraia gizarteko kontradizioetan dago. Denboran zehar kontradizio hauk\* gogortu egiten dira; eta azkenik alderdi iraultzaileak irabazle ateratzen dira, beren etsaiak\* zanpatuz eta baztertuz eta beren sistema inposatuz.

Kapitalismoaren haroko\* kontradizioak langileria eta kapitalisten artekoak ziren; eta langileria, Estaduko aparatuen jabe egiten denean, kontradizio hauk gaintzeko moduan egoten da eta lehen bere etsaia zena zapaltzeko moduan. Hau hola egiten ez badu, kapitalismoa berriz berpiztuko da eta berriro Estaduen jabe egingo da, bai buruzagiak sobornatuz, bai buruzagiak bortxaren\* bitartez menperatuz.

Langileria Estaduen gainean finkatzen bada, sozialismoan aurkitzen gara, eta kontradizio material guztiak gaintutik geratuko dira. Hau da, lehengo sistema sozialistak kontradizioak jabeen eta beharginen\* arteko kontradizioak ziren; orain, denak berdina direnez gero, era horretako kontradizioak ez dago.

Lehengo sistemetan kontradizio materialak nahi eta nahiezkoak ziren, gizarteak aurreratu nahi bazuen. Baina, orain, sozialismoaren barruan, zerk aurreratuko du sistema osoa, egintza, pentsamoldea, eta abar? Ba dirudi, sistema honek ez duela arrerapenik izango. Baina ez da hola gertatzen; eta sistema honek ere ba ditu bere kontradizioak, eta, lehen materialak ziren bezala, orain intelektuak dira.

Sistema honetan, batzuk\* atzeratuak geratuko dira, gizarteko egintza guztietarako edo batzuetarako behin-

Herria gora eta behera, herria helburutzat, herriaren zerbitzura egon... Baina, gutien uste dugunean, herriaren bideetatik aldentzen gara.

Beraz, gauza bakarra eskatu nahi nuke: hitz batek esannahi sakona eta errespetagarria berez\* duenean, dagokion errespetuz hitz hori erabiltzea. HERRIA hitzaren mamia bilatu behar dugu, eta ez, gehiegi aztertu gabe, zer esaten dugun ere jakin gabe, arinkeriaz erabili.

Itzul diezegun hitzei beren esannahia; eta saia gaitzen, behar den moduan erabiltzen. Bestela, ulertu ezezik, elkarren arteko burrukan sartuko gara. Horregatik, bideak ondo neurtu behar dira. Momentu batetako garaipen eta irriparrak ez gaitzala lilura.\* Arazoa nahiko garrantziko da, alditxo batetako exituaren\* truke, etorkizuna arriskuan jartzeko.

Nahi duenak uler beza.

## HORMAETXE

balio, **baletso**  
beza, **bei**  
dezagun, **daigun**  
diezegun, **deiiegun**, **dezaiegun**  
diote, **dinoe**

gaitzala, **gaizala**  
zaie, **jake**  
zaiku, **jaku**, **zaigu**  
zaizkigu, **jakuz**

tzat; eta beste batzuek aurrera jarraituko dute, zientziak erakusten duen bezala. Eta hemen ikusiko da, batzuen eta besteen artean kontradizioak daudela; eta, kontradizio hoik\* gaintzeko, **kritika** eta **autokritika** datoz.

Hau hola planteaturik, garbi ikusten da, zenbateko garrantzia dadukaten dialektikaren bi faktore hauek, eta gure artean nola aplikatzen diren.

Geure buruari bira bat ematen badiogu, laster ikusiko dugu, nola alderdi eta mugimenduek erabiltzen dituzten hitz hauk, batik\* bat beren burua sozialistatzat edo komunistatzat jotzen dutenek; eta segituan konturatuko gara, hitz hutsak besterik ez direla. Honi buruz denak mintzatzen dira, autokritika eta kritika beharrezkoak direla; baina praktikan nork onartzen ditu, burokraziako piramidearen gainean dagoenean?

Bestalde, goitik behera datorren kritika onartu beharra egoten da; eta behean dagoenak konfesio publiko bat egin behar du, zutik jarraitu nahi badu behintzat, nahiz fariseoek bezalako damua eduki.

Goi mailako burokratei kritika egiten zaienean, haien aldekoa izan behar du hori egiten duenak; bestela gaizki dabil.

Hau hola izanik, zer itxaropen eduki behar du gizarte sozialistak, aurrera joateko? Zer esperantza, gaur, sozialismotik hurbil\* egon arren, gure zuzendari burokratek kritikarik onartzen ez badute? Nola jarraituko die jendeak, beste diktadura baten oinarriak gaurtik ipintzen ari badira, eta jende hori horretaz konturatzen bada?

Gauzak hola gertatzen direlarik, Engelsen esaera tristetia —baina egia handia— datorkit burura: «Historiaren ironia da, boterea\* doktrinarioen eskuetan erortzen\* denean, hoiek jeneralki beren eskolako dotrinak esaten duena alde batera uzten dutela».

## B. BAKAIKOA

dadukate, **dauke**, daukate  
daduzkagu, **daukanuz**, dauzkagu  
daude, **dagoz**

die, **dautse**  
diogu, **dautsagu**  
zaie, **jake**

## Hau duk humorea!

### AGURE ZUHURRA

—Nola heldu haiz hainbeste urte bizitzera?

—Heriotzea, lapur bat bezala, gutien pentsatzen dugunean etorriko dela esan zian Kristok. Eta ni beti niagok heriotzeaz pentsatzen!

### PATUAREN\* INDARRA

Euskaldun iraultzailea\* zen.

Halabeharrez, **Ezkerra Iraeta** ziren haren abizenak.\*

### ANTIMATERIA

Zientziak frogatu\* duenez, antimateriazko mundurik ba ei\* dago nonbait. Antieuskara ere esistitzen denik, ez dago orain dudarik.

### ZER IKUS, HURA IKAS

**Semeak:** Aita, zer da manifestazioa?

**Aitak:** Jendetza handi bat, inori zeredozer adierazi nahiz, kalerik kale dabilana: horixe duk manifestazioa, ene semetxo.

**Semeak:** Aaaa, bai. Enterru\* bat!

ANTTON

# Arrasateko liburu eta diskoen azoka

## «DANOK» ELKARTEA

«S. D. Mondragón» eta herri honetako udaletxearen laguntzarekin, «Danok» elkarteak izan da bereziki\* azoka\* honen antolatzailea. Urtean zehar\* hainbat ekintza izan ditu bere esku, azkena Santo Tomas jaien antolaketa dalarik. Talde honen berri zehatzagoak hurrengo zenbakiren batean emango ditugu, A. Elorza taldearen zuzendariarekin egindako elkar hizketa baten bidez.

## EUSKAL LIBURU ETA DISKOEN AZOKA

Abendauren 18an, arratsaldeko 6retan eman jakon hasiera azokari, hitzaldi batekin. J. San Martin, J. M. Sartrategi, J. M. Lekuona eta Ibon Sarasolak gaurko euskal literaturaren egoera azaldu eben: euskal edizioak, Nafarroako idatziak, euskarazko literaturaren gorabeherak, euskal olerki\* eta bertso idatziak. Azoka honetan, zelan edo halan, euskal editorial guztiak izan ziren.

## DEBAKO ARTE LANTEGIA

Azokako aipagarrientzat Debako arte lantegia jo geinke. Bera izan zan jendeentzako deigarriena. Erakusketa honetan, burdin, egur eta harri lan batzuk agertu ziren, Debako arte lantegi horretan diharduen irakasle eta ikasleek eginak.

## «EUSKAL ERESKIN ZAHARREN ERAKUSALDIA»

«Danok» elkarteak antolatuta, «Euskal Ereskin\* Zaharren Erakusaldia» izan zan azoka honetako beste ekintza bat. Berean agertu ziren txalaparta, sunpñiu, tobera, alboka, pandero, dultzaina, xirolarru, salterio edo ttuntuna, txirula, soinu txikia, txistua eta musukitarraren joileak. Aurretik, programa batean, tresna horreen historia labur bat agertu eben.

## ARGAZKIEN ERAKUSKETA

«Besaide» mendi taldeak, Arrasateko udaletxeak eta «Itxas Aldeko» mendi taldeak lagundurik, antolatutako sarietara agertu diren argazkien\* erakusketa jarri eben, udaletxeko gela batean. Argazkien gaia, mendia zan. Epai mahaikoak, «Gipuzkoa Argazki» elkarteko bost jaun. 116 lan presentatu ziren, eta honela gelditu ziren sariak: lehen irabazle, Jesus Murumendaraz; bigarren, Antonio Unzetabarrenetxea. Biak «C. D. Eibar»ekoak. Argazkien gaia, «Cordada» eta «Regreso». Beste hiru sari ere banatu ziren.

## ALFABETATZEAREN ARDURADUNEN BATZARRA

Abenduaren 18an, arratsaldeko hirurak eta erdietan, Mondragoeko frantziskanoetan, herrialde\* guztietako euskal alfabetatzearen arduradunak bildu ziren, Aingeru Irigarai, J. M. Sartrategi, Salvador Garmendia, J. San Martin eta Jose Luis Lizundia euskaltzainekin. Informe batzuk emanez hasi zan batzarra. Informatzaileak Donostia aldetik J. B. Jauregi, Bizkaitik P. Elgezabal, Urola aldetik Etxebarria jauna, Tolosatik Iraeta, Goiherritik Sarriegi, Zarautzik Zulaika, Eibarretik S. Basauri eta Errenederi aldetik Txomin Izagirre. Informe honeen kopiak J. L. Lizundiak jaso zituan, Euskaltzaindiko artxiboan jartzeko. Jarraian, Aingeru Irigarai euskaltzain jaunak hartu eban hitza, alfabetatze kanpainak (textuak, ortografia, hitzaldiak eta abar) nola izan leitekezen txosten\* bat irakurritz. Ondoren, J. L. Lizundia mintzatu zan kanpainen antolaketari buruz.

Azkenik, norma batzuk eman ziren, herrialdeetako arduradunek Euskaltzaindiarekin harreman gehiago izateko. Batzar honetako aipagarriena, lehengo kezka ahazturik, aurrera begira jokatzea.

JOSU TORRE

## Atzera ala aurrera?

Bizkaian «La Gaceta del Norte» egunkariak eta Gipuzkoan «La Voz de España» izenekoak, euskal hizkuntzaz baliaturik ematen dute zenbait berri. Baina ez euskara hutsez, notizia berbera, gauza handirik aldatu gabe, erdaraz eta euskaraz baizik.

Jokabide hau norainoko mesedegarri izan lekikeo euskal hizkuntzari? Gure egunkari handi eta hedatuetan\* euskara agertzea, zeharo mesedegarritzat jotzen dugu euskararentzat. Baina, texto berbera bi hizkuntzetan datorrigularik, beldur gara, euskaldunik gehienek erdarazkora joko duketela.\* Erdaldunek, ostera, euskal textoa alferrikakotzat emango dute, dudarik gabe.

Bestalde, euskara hutsez argitara ematen ditugun notiziek ezin dezakete indar handirik izan, irakurleek askoz ere lehenago asetuko baitute notizien egarria erdal egunkarietan. Eta, diru infrastukturarik gabe, informabiderako hain teknika pobreak ditugun bitartean, ezin dugu gauza entzungarri askorik egin, euskararen aldeko burruka honetan.

Dena dela, egunkari handietan euskara agertzeari onuragarri\* deritzagu, lehen pauso bezala. Baina, euskara hutsez zerbait agertzekotan, bokabulario edo honelako lagungarri batzuekin egin behar litzateke, Nafarroako «Diario de Navarra»k egiten duen legez.\* Bestela, ez dakit aurrera ala atzera egingo dugun euskal hizkuntzaren arloan.



**hijos de j. bilbao goyoaga, s. a. - deusto-bilbao**  
Ribera de Deusto, 1 Apartado 1300



## Baina ez apirilik...

Eguberriaren bezpera  
hauetan  
guztiz pobre gelditu  
naiz...

Jesuiten kontua ezin pagatu ukan  
dut,  
eta  
ez kotxea ez telebista ez dautate  
enbargatu:

Batak bere ibiltzeaz ukatu  
du,  
eta besteak  
ez du argitu  
nahi.

Gabon hauetan ez dugu  
indi-oilaskorik  
janen  
gurean  
(egia da ez dugula sekula jan),  
eta, asko kariotzen ez bada,  
oilasko batekin

(Euskal Herriko oilasko miserable batekin)  
kontentatuko  
gara.  
Eta, gainera,  
ene haurren gandik sei urteko  
ausentziaren  
mehatxua...

**Si estás lejos de tus hijas,  
Aresti,  
tu corazón está triste;  
son el poema más bello,  
Aresti,  
que tú jamás escribiste.**

Ene haurtzaroko egunetan  
gose handiak  
sufritu nituen,  
eta horregatik  
egin nuen zina,  
ene hurrei ez zitzaie  
faltako,  
nik eduki ez  
nuena.

Eta hala nola  
gose hargatik  
madarikatu nuen  
lur hau,  
ez nuke madarikatu nahi ukanen  
hizkuntza hau  
neure alaben gasea  
gatik...

GABRIEL ARESTI

## Euskal herriaren mugak

Euskaldun jende xeheek, Euskal Herrian bizi direla jakin arren, ez dute jakiten beren Herriaren mugak non diren. Euskaldunen berri ez dakien bati hau esango bagenio, Euskal Herria lurralde guztiz haundia dela pentsatuko luke, muga ezagunik ez dituela eta.

Egia, ostera,\* besterik da, gaur Euskal Herritzat hartzen ditugun zazpi probintzietako bi herririk urrunenen artean ez baitira 300 km. baino askoz gehiago izango.

Hain kultur maila apalean bizi den jendeak horrela pentsatzea ez da haritzekoa. Zeharo harritzen gaitu, ostera, zerbait ikasitako pertsonen inorantziak. Eta, txarra goa dena, sarritan\* jende «ikasia» herria bera baino inoranteagoa izaten da puntu honetan.

Gure herriko gorabeheretan sarturik daudenek edo sentimenduz behintzat haietan parte hartzen dutenek, behin eta betiko jakin behar lukete, Euskal Herria ez dela, zazpi probintziak bakarrik hartzen dituen lurra. Hortik aparte ere, ba dira euskaldun diren lurraldeak: Errioxa, Jaka, Bearnoko pusketa bat, eta beste. Gaur probintziak partiturik ditugun mugak ez ditugu kasu askotan proposenak.

Honelako gaietan hain aditua dugun Lizundia jaunak egindako «Horizontes Riojanos» liburuaren kritika irakurri ondoren, liburu hori irakurtzeko gogo sortu zitzaizkidan; eta horrela egin dut, ezeren damurik ez dudala. Liburu honi egindako kritikari ona deritzat; baina nik orain irakurleari liburuaren inportantzia berriz gogoratzen badiot, ez diot liburuari ez Lizundiari ezer kenduko.

Lerro hauetatik, Alfredo Gil del Río idazleari eta liburuaren kritika egileari, euskaldunen zorionik gartsuenak eman nahi dizkiet: batari, egindako lan aipagarriaren esker onez; eta ANAITASUNAKO idazle prestuari, hari egin zion aipamen baliotsuagatik.

Liburua eskatzekotan. **Librería Isidoro Ochoa. Hnos. Moroy, 1. Logroño.**

ERRAMON GERRIKAGOITIA

bagenio, bageuntso  
daude, dagoz  
diot, dautsat

dizkiet, dautsedaz  
zion, eutson  
zitzaizkidan, jatan

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

ZURE DIRUGORDETZERAKO:

### Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao

Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko

Madrialeko ajentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27

Telefono 2 21 49 95

## "SATARKA" olerkariaren heriotzean

Hazilaren\* 23an hil zen Klaudio Sagartzazu «Satar-ka» olerkaria\* Ondarrabian. Herri berean jaioa zen 1895. urtean.

Gazte denboran ainitz\* sari eraman zuen. 1918 eta 1920.ean, Donostiako olerki\* sariak jaso zituen, eta garai berean mugazandiko lholdin ere bai. Sari ongi mereziak noski,\* zeren,\* dudarik gabe, «Satar-ka» lirikaren lehen urratzaileetakoa baitugu euskarazko literaturan. Luis Jauregi «Jautarkol» baino lehenagokoa, eta, honekin ba-tean eta Aitzolen inguruan, 1930.ean «Euskaltzaleak» izeneko olerki berrizte mugimenduaren eragileetako bat noski.

Agiri zehatzagorik ematen ez bada, «Satar-ka» jarriko nuke garai haren hasieran. Saritutakoei beste zenbait\* poema gehituaz, Victor Hugo eta Heine-gandik itzuliak ere tartean direla, liburu polit bat burutu zuen, 1922.ean Donostian **Txinpartak** izenez agertu zena.



**Klaudio Sagartzazu**  
**"SATARKA"**  
 ("Ayalde"-ren dibujoa)

Gaztaroko poema hoik\* aberrikoi sutsuak dira maiz,\* eta, Bidasoa aldeko artistek berezko duten bezala, Natu-raren laudoriozkoak maizago. Baroja nobelista handiari ere, beste eskualde\* batzuetako abertzaleek garai haie-tan uxatzen zutelarik, hitz ederrik eskaini zion goraza-rraz,\* haren ospeari begirapen onez:

Yauregi eder  
 Antziñakoan,  
 Gizon txit yakintsu bat bizi da.  
 Bidasoa'ko  
 Txapelaundia,  
 Edestizundari\* ezaguna.  
 Udaberriko  
 Arratsaldean,  
 Bera'ko urira\* naiz etorri,  
 Ta leku alai  
 Au ikusirik,  
 Agur dagiot gaur Baroja'ri.

Bidasoako txapelaundi jakintsua, beraz, ez zen eus-kaltzale eta abertzaleen artean ezezaguna eta maitaga-bea.

Baina lehen liburu hartako poemarik ezagunena, se-guru asko, «Aurtxo seaskan» izango dugu noski.\* Poe-matxo hau, sehaska kanta, Olaizolak musika jarri zione-tik, oso ezaguna baita Euskal Herri guztian, haren hasie-rako eta amaierako\* bertsoak behinik behin. Ama askok beren haurtxoei ehundaka aldiz kantatua noski:

**Aurtxo polita**  
**Seaskan dago,**  
**Zapi zuritan**  
**Txit bero...**  
**Amonak dio:**  
**Ene potxolo,**  
**Arreñ egin, ba,**  
**Lolo, lo...**  
**Txakur aundia**  
**Etorriko da,**  
**Zuk ez ba'dezu**  
**Eiten lo.**  
**Orregatik, ba,**  
**Ene potxolo,**  
**Egin aguro\***  
**Lolo, lo...**

Beharbada, ez da izango hain pedagogikoa; baina, besterik ez zegoen garaian, zerbitzu ederrik eman zien ama euskaldunei, semetxoak lotara baretzeko. Praktika-rako baliatu ziren, eta ez da guti.

Haren bigarren liburua, **Intza begietan**, Donostian argitaratu zen 1957.ean, Manuel Lekuonaren hitzaurrea-rekin eta Antonio Valverderen irudiekin. Liburu atsegina. Beharbada, atzean gelditu zèn poesi era batean molda-tua; baina, etorri zèn garaian, ez zen erraz besterik egitea. Bai euskara bera eta bai poesi hizkuntza, gazta-roko **Txinpartak** liburukoak baino landuagoak ditu. Poe-marik gehienak, liburua agertu zèn urtea baino askozaz lehenagokoak dira.

Bi liburuak agortuak badira ere, bigarrena, oraintsua-gokoa denez, ezagunagoa da.

Euskarazko literatura murriztean\* bere toki berezia merezi duen poeta dugu, eta samurki\* begiratzeko me-rezimenduak dituena. Honegatik nahi izan dugu, haren oroitzapena orri hauetara ekartzea.

Hark kunplitu zuen bere herriarekin, eta denek ezin dezakete horrenbesterik esan.

JUAN SAN MARTIN

dagiot, egiten deusat,  
 egiten diot  
 dezakete, daikee  
 dio, diotso (diotsa)  
 zien, eutsen  
 zion, eutson

## Erradioaktibitatea

Artikulu honekin, erradioaktibitatearen misterioak azalduko dauzkigun sail bati eman nahi diogu hasiera. Artikulu hoietan, erradioaktibitatea zer den eta zer aplikazioak dituen aztertuko dugu, eta, gainera, bera moneiatzean agertzen diren problemak ikusiko. Gaurko artikulu hau, deskubrimendua eta lehen pausoak ikustera dedikatuko dugu.

### Deskubrimendua

Deskubrimendu askotan bezala, hemen ere parte handia izan zuen kasualitateak. Deskubritzailea Antoine Henri Becquerel izan zen; eta kontatuko dugun gertaera hau, 1896. urtean jazo\* zen.

Ez dakit zergatik; baina, zerbait inportante jazotzen denean, berehala sortzen da anekdota entzungarriren bat. Newton-en sagar famatua dugu lekuko.\* Oraingo kasu honetan ere, eta, beharbada, deskubrimenduak merezi zuelako, anekdota bat behar zen. Ikus dezagun, bada, gure gizonari jazo zitzaiona.

Garaiko zientifikoek X izpiak\* ezagutu berriak zizuten, eta oraino pixka bat harrituta zeuden. Hala ere, berehala hasi ziren, bide berriak topatu nahiz, hauxe baita zientifikoaren betebeharra. Honela, han zegoen gure gizona, fluorezentzia eta X izpien arteko erlazioaren bila. Horretarako, beste tresna batzuen artean, fotografi plakak erabiltzen zituen. Gau batean, kasualki, plaka bat utzi zuen paper beltzez estalirik, argi izpiez bela\* ez zedin. Goizean, rebelatuz gero, guztiz belaturik zegoela konturatu zen. Bere erruz\* izanzen zela pentsatu zuen. Baina, biharamunean berdin jazo zitzaionean, ulertu ezinik geratu\* zen.

Gero, beste zenbait\* esperimenduren bidez, fenomeno haren kausa aurkitu zuen: uraniozko gatz bat zen errudun. Eta nola aurkitu zuen kausa hau? Hara: esperimendu batzuk\* egin zituen kondizio desberdinetan, eta gero logikaz interpretatu zituen ondorioak. Lehenik ez zuen ezer jarri; gero uraniozko gatzak ipini zuen alboan; azkenik, objeto sinpleak kolokatu zituen uraniozko gatzak eta plakaren artean, eta, era honetan, objetoaren imajina agertzen zen plakan. Fenomeno hau esplikatzeke, aukera bakarra zegoen: uraniozko gatzak izpi ezezagun batzuk botatzen zituen, eta fotografi plakak izpi hauek belatzen zituzten. Gainera, izpiok ez zuten indar penetratzaile handirik, eta, horregatik, bitartean objetoren bat jartzen zenean, haren silueta agertzen zen, objetoaren direkziozko izpiak absorbiturik geratzen zirelako. Izpi hauek,\* fenomeno erradioaktiboaren ezagugarriak dira.

### Lehen pausoak

Lehen pausoa emanez gero, zientifikoak kezkatzen hasi ziren deskubrimendu berriaz. Beste askoren artean, Pierre eta Marie Curie senar-emazteak ditugu.

Ikusi dugunez, deskubrimendua uraniozko gatzak bidez zertu zen. Baina irradiazioak oso motelak, oso ahulak\* ziren; eta, ikertze\* sakonago bat egiteko, irradiazio bortitzagoak\* behar ziren.

1897. urtean, Curie senar-emazteek aislatu egin zuten uranioa. Gero polonioa ere bai. (Polonioa, uranioa baino laurehun aldiz aktiboagoa da). Eta, 1898.ean, radioa aislatu zuten. (Hau, uranioa baino milioi bat bider aktiboagoa).

### Irradiazio motak

Puntu honetara ailegaturik, zientifikoak irradiazioen propietateak estudiatzera saiatu ziren. Deskubrimendu berriekin, irradiazio ugari zuten, lan egiteko; eta, kondizio hauetan, prest zeuden, lana aurrera eramateko.

1899.ean, Ernest Rutherford-ek bi irradiazio klase bereizi zituen, **Alfa** eta **Beta** izenekoak. **Alfa** izpiak, penetrantzia gutien zutenak ziren, eta, karga elektrikoaren aldetik, positiboak. **Beta** izpiak, aldiz,\* negatiboak. Izatez, izpi mota hauek\* ez dira benetako izpiak, partikulak baizik. Baina, masa oso tipia eta abiada\* izugarri handia dutelarik, izpi bezala kontsidera daitezke.

Gero, 1900. urtean, P. Villard-ek karga elektriko gabeko izpi batzuk\* (benetako izpiak) aurkitu zituen, **Gamma** izpiak. Izpi hauek askoz ere botere\* gehiago dute, gorputzen barnera joateko, beste biek baino. Beste irradiazio batzuk ere ba dira, baina hiru aipatuak dira inportanteenak.

J. R. ETXEBARRIA

daitezke, **daitekez**  
dauzkigu, **dauksuz**, dizkigu  
dezagun, **daigun**  
diogu, **dautsagu**

zedin, **eiten**  
zeuden, **egozen**  
zitzaion, **jakon**

## GERNIKA

### Iturri bertsolariari omenaldia

Urriko azken igandea. Gernikako frontoia gainezka egoen. Iturri bertsolaria, min hartu ondoren, ibili ezinik dago. Bere oinez ez da baliatzen, ez eta cuskuz ere. Eta emaztea eta hiru seme-alaba mantendu behar.

Laguntza bezala, omenaldi bat egin jako; eta frontoia bete. Hemen ziren indartsu, pultsulari, Aretxa, Txikito de Mallabia, Cabrejas, Yurrebaso, Isla, Beitia, eta abar.

Jendeak ekinaldi guztiak txalotu zituan. Baina kezka bat, kezka sakon eta mingarri bat egoen herriaren ahotan: Bertsolari baten omenaldian bertsolaririk ez egotea. Egon, ba egoen bertsolari mordo bat; baina jarduteko baimenik ez. Ez ote da lotsagarria, ezbeharrean dagoen bati laguntzeko, permisua eskatu beharra? Eta, gainera, eman ez? Ez dauka erantzunik.

Omenaldi tristea, batez ere Iturrirentzat. Aurrerantzean ez dadila inoiz eta inon horrelakorik gerta!

ABEL

Eskatu **ANAITASUNA**  
kalkomaniak

Artikulu hau egin eta gero, USAko gobernuak kendu egin ditu lehen jarritako neurriak, eta dolarra debalatu. Hala ere, interesgarri deritzagu artikulu honen argitaratzeari, USAko ekonomiaren egoera eta gorabeherak jakin erazteko.

ZUZENDARITZAK

## Dolarraren krisia

Egoki iruditu zaiku, USAk azken aldi honetan hartu dituen ekonomi neurriak aztertzea, neurri hoik\* zer diren eta zer ondorio dakarten geure irakurleei jakin erazteko.

Neurri garrantzitsuenak, hauk\* izan dira: USAko gobernuak ehunetik hamarreko tasa edo inpostua erantsi die kanpotik erosten diren produktuei; diruaren kanbioa aidean edo "flotante" utzi du mundu kapitalista osoan; eta, bere dirua (dolarra) debalatu gabe, beste zenbait naziok berena rebalua edo garesti dezaten nahi du.

Baina, azterketa hau funtsezkoa izan dadin, ezagutu egin behar ditugu, lehenik USA barneko ekonomiaren egoera, ondoren beste Estaduetako gorabeherak, eta azkenik nazioen arteko harremanak. Denok dakikegunez,\* USAko aministrazioa "deficit" handiarekin dabil aspaldion; eta "deficit" hau urtean baino urtean haundiago eginaz joan da. Beste Estaduekiko zor haundi hauek eginbide edo obligazio handiak sortera zizkieten USARI; eta, horregatik, kontrol berri baten beharrean aurkitzen zen.

Bestalde, Estatu hartzedunak\* ondo konturatu ziren, USARI egiten zizkieten eskabideei ezin ziezakeela hark osoki erantzun. Honetaz lehenengo konturatu zena, De Gaulle izan zen.

Delako "deficit" honek inflazio gogor batera eramaten zuen USAko ekonomia, eta lan eskasia izugarria agertu zen.

Horrez gainera, ba da zerbait gehiago ere dolarraren krisi honetan, hots,\* USAko errezerben urritzea eta hanga kuxaren hutsik gelditzea.

Zenbait\* urte dela, kapitalist sistemaren premiaz edo beren interesengatik, USAk eta Ingalaterrak hartu zuten sistema honen kontrola, diru papera errearekin trukatzeko boterea beren gain ipiniz. Bien artean (dolarra eta libran artean), denok dakigu, dolarra erabili dela azken urteotan diru trukatzailer bakar bezala. Handik aurrera, edozein Estaduk, dolar errezerbak zituenean, USAko Gobernu Federalarekin hitz egir eta berehala errearekin truk egin zezakeen diru hori. Horregatik, dolarra bezain diru seguru eta hobeagorik ez zegoen; eta, bestalde, horra hor USAren indar izugarria, bere jabetza eta inperioa mundu guztira zabaltzeko.

Hauxe zen, azken neurriak hartu aurretik, USAk zeukan egoera. Orain ikus ditzagun ondorioak.

Ehunetik hamarreko tasa honek kanpotik gutiago erostera behartu du USAko jendea. Orain, merkeago eskaintzen dira barneko produktuak, eta dirua han bertan gasta erazten zaio jendeari. Barneko produktuen kontsumo handiago honekin eta jendearen eskabide berri honekin, lan gehiago egingo da, eta soluzionatzeko bidean jarriko da lan eskasia.

Honekin problema bat datorkio USARI, eta hau da: Inportazioari trabak jarritz, ez du berak ere kanpora saltzeko modurik izango, eta, horrela, autarkia batera hel daiteke, eta, soluzionatu ezezik, okerrago ipiniko zaio krisia.

Horregatik, krisia ondo konpontzeko, interes handia du USAk, beste Estatu indartsuek beren dirua rebalua dezaten; eta hona hemen, hori lortzeko, gaur egunean Ipar Amerikak egiten dituen ahalegin guztien funtsa.

Orduan, krisi hau diru trukearen konponketa bat baino ez ote da? Ez. Esan dezatela, bestela, Estatu behartsuek, haiei etortzen baitzaizkie krisiaren ondorioak.

Ekonomia aurreratua duten Estaduek, debalazio nahiz rebaluzioaren bidez, harremanetan jarraitzeko modua izango dute. Estatu behartsuek, ordea,\* lurgintzako produktuak dituzte gehienbat esportaziorako, egiten dituzten inbertsio industrialak ordaintzeko. Eta, industrializazioaren beharra dutelarik, garestiago erosi beharko dute, eta, konpetentziak bortxaturik,\* merkeago beren produktuak saldu, delako tasa horrekin prezio ona izango badute. Beti bezala, Estatu behartsuek ordaindu beharko dute kapital indartsuaren krisia.

Azkenik, nola soluzionatuko dute urrearen problema? Gorago aipatu dugun, dolarrak errearekin trukatzeko duen kalitate hori, ez dakigu zenbateraino erabilia izan den. Zeren,\* azken urteotan, Estaduetako "deficit-superavit"ak likidatu ordez, irteten\* ziren saldoak urtean urtean hurrengo saldoari eransten baitziztaizkion. Noiz arte honela? Itxura denez, egituren\* hazkuntzak eta kapitalen haunditzeak gero eta diru mugimendu gogorragoak eskatzen dituzte; eta, berehala, errezerben faltara erraz ailega liteke.

Esan dezakegu, errezerbazko kapitalist sistema hau azkenetan dagoela.

Zer soluzio emango ote zaio problema honi?

Ekonomista asko izan dira, azken urteotan, gai honetaz mintzatu direnak; eta dolarraren krisi honek oraindik ere gaizkiago jartzen du errezerbazko sistema hau.

Gaur egunean eman nahi zaion soluzioa, hau da: Urrearen trukatzailer bakarrak USA eta Ingalaterra izan ordez, "hamar Estatu indartsuak" izango dira; eta hamar hoiek eramango dute laster mundu guztian kapitalist ekonomiaren zuzendaritza.

Baina noiz arte horrela? Kapitalismoa bere kontrazioengatik eroriko\* zela esan zuen Marxek. Krisi hau ote dugu erorketa horren seinale?

J. ARRIZABALAGA

dezaten, **daien**  
dezakegu, **daikegu**  
ditzagun, **daiguzan**  
die, **dautse**  
zaiku, **jaku**, zaigu  
zalo, **jako**

zaizkie, **jakez**  
zezakeen, **eiken**  
ziezakeen, **eiskioen**  
zitzaizkion, **jakozen**  
zizkieten, **eutsoezan**

## "Bai mundu berria"

Argitaratu berria da, Aldous Huxley ingles idazlearen «Brave New World» nobela famatua, Xabier Amurizak euskarara itzulia. Atseginez jartzen dugu hemen, itzultzaileak egin dion hitzaurrearen laburpen bat.

ZUZENDARITZAK

Zenbaitek\* galde dezake beharbada, zergatik hautatu\* dudan nobela hau, bat euskaratzen hasterakoan. Esanen diot, ez dudala neuk hautatu. Ezertan hasi baino lehen, LUR editorialarekin harremanean jartzea pentsatu nuen, eta ea zer itzultzea nahi zuten. Nobela hauxe zitzaiela urjenteen, erantzun zeutaten, eta honexekin has nendila.

Ez dut asmorik, nobela honi kritika sistematikorik eta ideologikorik, ez eta teknikari buruzkorik ere egiteko, nahiz eta xit interesgarri litzatekeela diritzadan. Bihoaz hitz hauk,\* nobela hau konprenitzen laguntzeko bakarrik, zeren\* erraza baita, arreta\* haundiz ibili ezik, erdi despistaturik irakurtzea, zertaz ari den gabi konturatu gabe, bi arrazoigatik batez ere:

a) Nobela bera oso tekniko eta gaiez guztiz originala delako. Zer mundu klase den igarri orduko, orri asko pasatuko dira beharbada. Neuri ere, lehenengo irakurraldian, honelako zerbaitu gertatu zitzaitan. Baina, fraseka itzuliaz joan naizenean, orduan kargutu naiz ondo nobela honen balioaz.

b) Bigarren arrazoa ez da xikiagoa. alegia,\* hizkuntza bera izanen zaiola askori eragozpenik aski,\* ez baikaude honelako gauzak euskaraz irakurtzera ohituak. Bizkaian, adibidez, aditzarekin bakarrik ere nahikoa komeria izanen duke\* askok.

Dena dela, ez dut uste hain zaila denik nobela hau hasieratik ondo konprenitzea, hasieratik konprenitzen baldin bada, «mundu berri» hau guztiz diferente dela mundu errealetik, nahiz eta beronen kritika errukigabea izan.

Ez pentsa, hala ere, beste zenbait nobelatan bezalako jenero komertzial eta merkea hemen aurkitzerik. «Saltsa» horren bila doanak, desengainio ederra hartuko du.

Zein dira, orduan, artea, Jainkoa, egia, libertatea, zahartza, zorikabea, grinak, inizatiba pertsonala, sentimenduak... abolitu dituen mundu berri honetako oinarriak? Produkzioa, kontsumoa eta, denen gaintetik, estabilitatea. Produzitu egiten da, kontsumatu egiten da, pertsonak berak ere fabrikatu egiten dira; baina inork ez du galdetzen zergatik edo zertarako. Mundu honetan ez da posible errebelde, iraultzaile,\* libre izatea. Ez dira kapaz, obratzen dutenaz bestera obratzeko. Zergatik? Halaxe fabrikatu dituztelako. Eta nora doa honelako gizartea? Inora ere ez. Iritxi\* da irixteko lekura, iritxi da estabilitate sozialera, eta, beraz, nahi eta ezko zorionera.

Mundu zoriontsu honek, ordea,\* irtenbiderik\* gabeko laberintoa dirudi. Hain hertsiki\* kontrolaturik eta determinaturik dago dena, eta, batez ere, gizonak berak hain dira ezteus,\* hain dira nor-ez, non ez baitira kapaz, libre eta gizon izatea zer denik ere asmatzeko. Lortu\* da gizona «fabrikatzea» eta nahi den modukoa: gizon esklaboa berez,\* bere izatez, ia ia makina bat. Honelako gizonekin mundu honek ez du irteñbiderik. Horixe da

kapitalismoak pozik hartuko lukeen pertsona klasea, alegia,\* bere esklabotasunez zoriontsu den gizona. Horrela, ez litzateke errepresiorik behar; eta pentsa, nolako abantail ekonomikoa letorkeen hortik.

Huxleyk hemen agertzen daukun mundu absurdoa eta izugarria posible ote da, gertatuko ote da inoiz? Aitor dezagun, arriskua ba dagoela, eta Huxleyk puntu neurgalkora, leku lekura jautiki duela harrikada.

Eroriko\* ote da gizateria arrisku honetan? Zapalkuntza eta esplotazioa eguneroko ogia izan arren ere, ez dut inola uste, mundu hori inoiz gertatuko denik, zeren\* inoiz baino gehiago eta indartsuago baitatoz gizonen eta herrien aldeko eta esplotazioaren kontrako mugimendu iraultzaileak.\* Itxaropena ere, beraz, inoiz baino gehiago eduki behar dugu, baina itxaropen erreala, ez utopikoa. Etorkizuna errazegi dakusatenei Huxleyk esanen die nobela honetan, zer etsai\* klase izugarri eta indartsu menderatu beharra dagoen.

XABIER AMURIZA

bihoaz, **beloaz**  
dakusate, **dakuste**, ikusten dute  
dauku, **dausku**, digu  
dezagun, **daigun**  
dezake, **daike**  
die, **dautse**  
dio, **dautso**

diot, **dautsat**  
gaude, **gagoz**  
zaio, **jako**  
zeutaten, **eusten**, zidaten  
zitzaien, **jaken**  
zitzaitan, **jatan**

### Txistu kantak disko nagusian

Markinako Ansola anaia txistulariek disko nagusi berri bat grabatu izan dabe, Madrilera «Columbia» etxearen bidez. Hona hemen disko honek dakarzan kantuen izenburuak. **Alborada en cuatro tiempos**, Bonifazio Lascurainena. **Urrundik**, Aita Emilianorena. **Oxinetik bidebarrira**, Bastidarena. **Iru Damatxo**, Urteagarena. **Tocata y Fuga en Re Menor**, Bach-ena, Aita Emilianok moldatua. **Or konpon**, Aita Emilianorena.



**DANTZA TOKI GOXOA**

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra  
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

**ATAUN**

Herri honetako auzune batek San Martin du izena; eta bertako jaiak egun horretan, San Martin egunean alegia,\* ospatzen dira. Dakigunez, egun hori hazilaren\* 11n izaten da. Hori dela eta, auzokoek jai ederrak eratu zituzten. «Lazkao Txiki» bertsolaria aurkezle zelarik, han ziren albokariak, kantariak, antzerkilariak, bertsolariak, haizkolariak, korrikalariak, eta abar.

Jaien programa, liburuxka batean agertu zuten. Liburuxka horretan, ordea,\* akats ikaragarriak, bildurgarriak zeuden. Akatsetako bat, joskera\* itsusia zen. Begira zer zioen propaganda orrietako batek: *Iñaki Aierdi-ren gizonezko ille mozketa ta apainketa etxean egin sazu*. Beste era honetara esan beharrean: *Gizonezko! Ille mozketa eta apainketa Iñaki Aierdiren etxean egin sazu*. Beste orri batek honela zioen: *Eulogio Aldasoro Arrandegia itxas janak presko eta merkeak*. Ez ote litzateke hobeto egongo honela: *Itxas janak presko eta merke Eulogio Aldasororen Arrandegian?*

Joskera akatsez gainera, deklinabide akatsez josia zen liburuxka. Hona hemen, hoietako akats batzuk: *Euskal liburu eta diskaren zabaltzea saloian*. Ez ote litzateke, «diskaren» orde, «disken» izan behar? H hizkia\*

**Kardaberazen omenez liburu berria**

Jaso berria dogu «Kardaberazi omenaldi» liburu berria. Donostiako Kardaberaz Bazkunak argitaratu dau, Aita Agustin Kardaberazen heriotzaren 200. urteurrena ospatuz.

Liburu honetan, Kardaberazen bizitza eta haren izena daroan Bazkunaren historia eta lanak agertzen dira. Ez da liburu honetan batasunera pauso txikienik ere eman izan. Parte hartu dabean idazleak, honeek dira: Manuel Lekuona, Santi Onaindia, Jokin Arostegi, Joan Goikoe-txea, Txomin Irigoien, Pedro Berrondo, Luis Larrañaga, Anastasio Arrinda, Manuel Estonba, Paben Loidi eta beste batzuk. Eskatzekotan: Kardaberaz Bazkuna, San Martin, 57. San Sebastián.

ere, zenbait\* lekutan gaizki jarria zegoen. Nori bururazten zaio «umehen» idaztea? Eta hitz hori lau edo bost aldiz idatzita agertzen zen, eta denetan berdin.

Egia esan, pena ematen zuen hura irakurtzeak. Akatsak edozeinek ditu, neronek ere asko. Baina, gauza bat argitaratu behar denean, hori egiteko gai ez denak, gauza horretaz ulertzen duen batengana joan behar duela uste dut. Gainera, ba dago Goiherrian euskal alfabetatze batzorde\* bat. Zertarako dira, bada, batzordeak, horrelako ezjakinkerietan hitzik ez badute.

Beharbada, nire eritzi hau gogor xamarra izanen da, eta barka. Baina programa hura ere oso gogorra zen; hitz batean esanda: lotsagarria.

Saia gaitezen, bada, alfabetatze klaseetara azaltzen; idazten eta irakurtzen ikasteko behintzat. Esate baterako, aurreko udan, guraso elkarteak alfabetatze ikastaro bat eratu zuen Ataun herri honetan. Denetara, berrogeiren bat gatzetxo ibiliko ziren; adinekoek, ordea, itxura denez, ez dute ikasi beharrik.

AGAUNTZA

2. orrialdetik

Hori garaiz gertatu balitz, ez genuke oraingo egoera: bost gotzain Euskal Herrian eta haietarik lau erdal-dun (Baiona, Gasteiz, Iruine eta Bilboko). Honen konpondu beharra dago oinarritik beretik. Jar bedi Euskal Herri osoa Iruineko artzobispadua-aren pean.

**Ohar bat**

Deustuko ikastolako zuzendaritzakoa den Kepa Albizu jaunak ohar bat jartzeko eskatzen dauku: «Kepa Albizu» firmarekin AGUR aldizkarian argitaratu diren lanak ez direla berak idatziak, eta ez duela baimenik eman, bere firma aldizkari horretako lanetan ipintzeko.

Beraz, argi eta garbi gera\* bedi, Deustun bizi den Kepa Albizu euskaldun sutsu eta langile zintzoak ez duela aldizkari horretako lanekin zerikusirik.

XABIER GEREÑO

**Transportes "ANAITASUNA"**

- Trasporte kooperatiba euskalduna, gaurko egunak eskatzen duen modukoa.
- Karga osoak nahiz paketeak, peninsula guztirako.
- Euskal Herriko komertzio eta industriaren zerbitzuan.

**TRANSPORTE ARAZOAN LAN EGITEN DUTEN KAMIOIDUNEI:**

- Egin ditzagun enpresa haundiagoak, geure interesak zaintzeko eta irabaziak gehitzeko.
- Bakarrik ezin duguna, elkartuta egingo dugu.
- Gure gaitz guztien sustraia, nor bere aldetik ibiltzea da.
- Elkartu ditzagun geure indarrak.
- Sartu zaitez «ANAITASUNA» trasporte elkargoan.

Hona hemen zuzenbideak

PAMPLONA Pico de Ori, 2 Tel. 23 92 40	SAN SEBASTIAN General Mola, 45 Tel. 42 81 77	BILBAO Gordóniz, 93 Tel. 32 78 85	VITORIA Concejo, 5 Tel. 21 14 35
BEASAIN Avda. Navarra, 47 Tel. 89 18 37	ALSASUA Mayor, 8 Tel. 56 01 76	MADRID Paseo de la Chopera, 29 Tel. 228 45 46	TOLOSA Carr. Leaburu, s/n Tel. 66 10 24



## I. HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartxo batez agertzen diren berbak

ABIADA, **velocidad**.  
 ABIZEN, deitura, **apellido**.  
 AGERKARI, **publicación**.  
 AGURO, agudo, arin, laster.  
 AHANTZI, ahanztu, ahaztu.  
 AHUL, makal.  
 AHULEZIA, makaltasun.  
 AINITZ, asko.  
 AINTZIRA, **laguna**, lacune.  
 AITZITIK, **al contrario**.  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALEGIA, **esto es, es decir, a saber**.  
 AMAIERA, bukaera, **fin, término**.  
 ARAUERA, arabera, **según, conforme**.  
 ARBUIATU, **despreciar**.  
 ARERIO, etsai, **enemigo**.  
 ARGAZKI, **retrato**, portrait.  
 ARI IZAN, aritu, jardun, ihardun.  
 ARRETA, **atención, detenimiento**.  
 ASKI, nahiko.  
 ATONDU, **disponer, arreglar**.  
 ATZIPETU, **engañar, defraudar**.  
 AURKEZLE, **presentador**.  
 AURREZKI, **ahorro, épargne**.  
 AZOKA, feria.

BARRUTI, **territorio jurisdiccional**.  
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.  
 BATZORDE, **comisión**.  
 BATZUK, zenbait. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).  
 BEHARGIN, **langile, proletario**.  
 BEHINEN, **primario, principal**.  
 BELA, belatu, **velar** (sujuntiboetan).  
 BEREZ, berenaz.  
 BEREZIKI, batez ere.  
 BILAKATU, bihurtu.  
 BILKURA, bil'ra, batzar.  
 BODEGA, xai, soto, arnotegi.  
 BORTITZ, indartsu, **boteretsu**.  
 BORTXA, **fuera, coacción**.  
 BORTXATU, **forzar, coaccionar**.  
 BOTERE, indar, podere.  
 BOTERETSU, indartsu, **poteroso**.

DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
 DATZA, **yace, consiste**. (Etzan **aditzaren forma**).  
 DIRATEKE, dira nonbait.  
 DUKE, du nonbait.  
 DUKETE (joko duketela), **irán probablemente, vayan**.

EDESTIZUNDARI, **nobelista**.  
 EGITURA, **estructura**.  
 El, omen.  
 EKIALDE, eguzki alde, **Este**.  
 EKOIZPEN, **fruto, resultado, efecto**.  
 ENTERRU, ehorzketa.  
 EPAILE, **juez, juez**.  
 ERAKUNDE, **institución**.  
 ERESKIN, **instrumento músico**.  
 ERORI, jausi.

ERREMOLATXA, betarraba.  
 ERRU, hoben.  
 ESKUALDE, **comarca, región**.  
 ETSAI, arerio, **enemigo**.  
 EXITU, arrakasta, **succès**.  
 EZTEUS, ezerez.

FROGATU, **probar, demostrar**.

GAINDITU, **superar**.  
 GERATU, gelditu.  
 GORAZARRE, **alabanza, elogio**.  
 GUDALOSTE, **ejército, armée**.  
 GURA, nahi, gogo.

HARO, **época, período, edad**.  
 HARTZEDUN, **acreedor, créancier**.  
 HAUK, honeek. (**Hauek** aktibo, **hauk** pasibo).  
 HAUTA, hautatu (**aditz laguntzaile gabeko in-terrogazio indirektuetan**).  
 HAUTATU, aukeratu, **elegir**.  
 HAZIL, **noviembre**.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HELBURU, **fin, objetivo**.  
 HERRIALDE, **provincia**.  
 HERTSIKI, hestuki.  
 HIRI, huri, **ciudad, villa**.  
 HIZKI, **letra**.  
 HOIK, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).  
 HOTS, **a saber, esto es**.  
 HURBIL, hur, gertu.  
 HURREAN, nonbait, aurki.

IGURTZI, igortzi, **frottement**.  
 IHAZ, igaz, jaz.  
 IKERTU, aztertu.  
 IRAGAN, igaro, pasatu.  
 IRAINDU, **ultrajar, injuriar**.  
 IRAULTZAILE, **revolucionario**.  
 IRITXI, heldu.  
 IRTEN, urten, atera, ateratu, jalgi.  
 IRTENBIDE, urtenbide, jalgibide.  
 ITAUNDU, galdetu, **preguntar**.  
 ITXARON, igurikatu.  
 IZAKI, **ser, creatura**.  
 IZPI, **rayo**.

JASAN, **soportar, sufrir**.  
 JASO, altxatu; errezibitu.  
 JAZO, gertatu.  
 JAUSI, erori.  
 JOSKERA, **sintaxis**.

LABORE, **cereal**.  
 LANSARI, aloger, alokairu, **salario, jornal**.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEHIAKETA, **competición**.  
 LEKUKO, testigu.  
 LILURA, liluratu, **fascinar, deslumbrar** (su-  
 juntiboetan).  
 LORTU, erdietsi, ardietsi.

MAITA, maitatu (**potentzialetan**).  
 MAIZ, sarri.  
 MARRAZKI, **dibujo, dessin**.  
 MENDE, **siglo**.  
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.  
 MURRITZ, **corto de dimensión**.

NABARITU, **advertir, notar**.  
 NOSKI, naski, **ciertamente**.

OLERKARI, **poeta**.  
 OLERKI, **poesía**.  
 OMEN, ei.  
 ONAR, onartu (**potentzialetan**).  
 ONURAGARRI, **provechoso**.  
 ORDEA, ostera, berriz, aldiz.  
 OREN, ordu.  
 ORO, guzti.  
 ORTU, baratze.  
 ORTUARI, barazki, **hortaliza, legumbre, légume**.  
 OSTEAN, ondoan, ondoren.  
 OSTERA, ordea, berriz, aldiz.

PATU, **hado, destino**.

SAMURKI, samurkiro, **avec tendresse**.  
 SARRIAGO, maizago.  
 SARRITAN, maizetan.  
 SORO, solo.

TXOSTEN, **informe, comunicado**.

UDAL, **ayuntamiento, commune**.  
 UDALETXE, herriko etxe.  
 URDURI, artega, kexu, **inquieta**.  
 URDURITASUN, artegatasun, kexamendu, **inquietud**.  
 URI, huri, hiri, **ciudad, villa**.

ZEHAR, gaindi.  
 ZENBAIT, batzuk.  
 ZEREN, ze, **pues**.  
 ZERGA, **contribución, impuesto**.



## II. LEXIKO BATUA

XABIER KINTANAK

Zenbait hitzetan ba dago kutsu berezi bat, beste batzuetan ez dagoena. Hitz biak euskarazkoak dira, bai; eta horregatik erabili beharrekoak. Baina noiz bata eta noiz bestea jakin behar da. Hona hemen horrelako batzuk:

ANAIA (mutil batena)	eta	NEBA (neska batena)
HARAGI (bizia)	eta	OKELA (hilik salgai dagoena)
ORRI (paperezkoa eta belarrena)	eta	HOSTO (luzea gabe biribila, orbolena)
UME (gizonarena eta animaliena)	eta	HAUR (gizonarena bakarrik)



# ARABAKO ERRIOXA (1)

## Non eta zenbat

Hamazortzi herritan sakabanaturik dago eskualde\* hau. Gaur Arabarena da. Lehenago Nafarroarena zan; hain zuzen ere, "Sonsierra de Navarra" zan haren izen historiko zaharra. Baina harremanez, geografiaz eta ekonomiaz Errioxarena da, hots,\* Logroño hiriburutzat dauan probintziarena.

324,01 km<sup>2</sup>. eta 10.653 bizilagun ditu guztitara.

Mendebaldetik\* Ekialdera,\* honeexek dira udalak:\* Salinillas de Buradón, Bastida, Samainego, Baños de Ebro, Villabuena, Leza, Nabarida, Zieko (Elciego), Biaisteri (Laguardia), La Puebla de Labarca, Elvillar, Kiripan (Cripán), Lantziego, Iekora, Oion, Moreta, Orrubusu (Barriobusto) eta Labraza.

Sonsierrakoak ziren herri bi, Abalos eta San Vicente de la Sonsierra (izenak ere salatzen dau), feudo arrazoi batzuekatik ez dira gaur eskualde honetakoak, nahiz eta Ebroren ezkerrean egon eta Bastida eta Samainegoren artean bitarte bat egin.

Eskualde honek, Iparraldetik Kantabria izeneko mendikatea dauka, Hegoaldetik Ebro ibaia, Ekialdetik Nafarroako Lizarra merindadea, eta Mendebaldetik Haroko barrutia.\*

## Historia labur

Hamargarren mendeko\* San Millan monasterioko kartularioan, Arabako herri zerrendan ez da agertzen eskualde honetako herri bat ere. Ez da harritzekoa, eskualde hau ez baitzan oraindik Arabakoa. Nire ustez, eskualde hau Naxerako barrutian egongo zan garai haretan. Nafarroakoa zala esateá ez da nahikoa, denbora haretan Araba bera ere Iruineko erreinukoa zan eta.

Arabak Gaztelarekin bat egin eta gero ere, eskualde hau Nafarroarena izaten jarraitu eban, lehen aipatu dugun "Sonsierra" izenarekin, 1367. urterarte. Urte horretan Gaztela jabetzen da lurralde honetaz; baina 1430.ean berriro itzultzen da Nafarroara. 1461. urtean berriz Gaztelara bihurtzen da, eta 1486.ean Arabako anaiarteetan sartzen da.

Eskualdearen hiriburua, Biaisteri (Laguardia), hiri\* bezala, Nafarroako Santzio Jakintsuak fundatu eban, hain zuzen ere Donostia eta Gasteiz sortu zituanak; baina herria ba ei\* egoen Santzio Abarkaren garaian ere. Oraingo herria, elizaz, Iruinekoa izan zan, joan dan menderarte.

## Lurra

Lurra 390etik 700 metrora aurkitzen da itsasoaren nibeletik. Lur lehorra. Haren ibai bakarria Ebro da, beste errekatxoak agortuta egoten baitira hilabete askotan edo oso ur gutxirekin. Errekaren bat aipatzekotan, San Ginés izeneko aipatuko geunke, Elvillar eta Biaisteri mugatzen dituana. Aintzira\* batzuk ere ba dagoz.

Hotza neguan eta beroa udan, udaberri laburra eta udazken luze eta epela. Euri neurria 450etik 490 milimetrakoa izaten da batez beste.

Lur honek ardoa, olioá, ortuariak,\* patata, erremolatxa,\* laboreá\* eta arbola frutuak ematen ditu. Banco

de Vizcaya-ren estudioak dinoanez, 6.500 Ha. dira mahasti, 14.500 Ha. labrantza lur, eta gainerakoak ortu,\* larre eta baso. Olibadi asko ziren lehenago; baina orain geroago eta gutxiago gelditzen dira.

Hogeí hektareaz gorako labrantza lur gutxi dago, eta bai asko bost hektareaz beherakoak. Orain ba dihardue soro\* elkartzé edo "concentración parcelaria" dala koea egiten; eta horrek mesede handia egingo dautso eskualde honi. Kapital gutxi eta teknika askorik ez: horixe da nabarmen agertzen dana.

Baina eskualde honen aberastasun eta ospea ardoan dago.

## Ardoa

Hain zuzen ere, "Rioja Alavesa"ko saldak ospe handikoak dira mundu zabalean, eta, zer esanik ere ez, gure artean, bereziki\* Bizkaian eta Gipuzkoan. Probintzia bi honeetatik hainbeste jende hara joaten bada, ez da izaten haize ona hartzeko bakarrik.

1969. urtean, 14.507.828 litro ardo hartu ziren eskualde honetako mahastietatik, eta era honetara zabaldu: 6.574.165 litro Bizkaira, 4.281.558 Logroñoeko probintziara (seguru asko, ez bertarako, bertako bodegetan\* ondu eta gero zabaltzeko baino), 1.814.761 Gipuzkoara, 35.258 Nafarroara, 1.221.314 Espainiako probintzietara. Estranjeriara 580.772 litro esportatu ziren; esportatzaile ofizial bakarra Ziekoko "Riscal" bodega famatua.

Eskualde honetako ardangeletatik makinatxo bat ardo ateratzen da. Beharbada, ardangela txikiak gehiegi dira, eta Riscal-en antzeko bodega berriak gutxiegi.

Ardo kooperatibak ere ba dira: Oionen "Cooperativa Agrovinícola", Iekoran "Cooperativa San Sixto", Kiripanen "Cooperativa San Tirso", Elvillar-en "Cooperativa San Roque", Bastidan "Cooperativa Nuestra Señora de Toloño", Samainegon "Cooperativa Nuestra Señora del Valle", Lantziegon "Cooperativa Nuestra Señora del Campo". Sortu berria da "Coviria" edo "Cooperativa Vinícola de la Rioja Alavesa". Kooperatiba honen zeregina herrietako kooperatiben elkartzéa da, eta ardoaren elaboratze, tipifikatze eta komertzializatzeá. Kooperatiba honek aurrerapen handia emango dautso eskualdeari.

Beste ardo etxe nagusiak honeek dira: "Marquesa del Cororro" Villabuenan, "Hijos de Justo San Miguel", "Félix Preciado" eta "Bodegas Santiago" Bastidan, "Bodegas Palacio" Biaisterin.

Beharbada, ardo ekonomia honen egiturak\* ez dira hain zuzenak. Handiki batzuen eskuetan dagoz; eta mahasti txikien jabeek ez dabe orain arte komertzializatze egokirik egiteko modurik izan.

J. L. LIZUNDIA

